



Ekipoa	Biomasa solidoko galdarak, % 90etik gorako errendimendukoak
Kodea	D-4033
Ingurumen-hobekuntza	Emisio kutsatzaileak murrizten dira. Bereziki, CO ₂ emisioak hutsaltzat jo daitezke praktikan; izan ere, lurrazaleko karbonoaren ziklo naturalaren parte dira (ez da karbono fosil erauzia).
Honetan datza:	<p>Ondo dimentsionatutako trukagailu baten bidez biomasa erretzean (peletak, ezpala, egurra, etab.) sortzen diren keetatik ahalik eta bero-energia gehien erauzten duten galdarak dira. Gehienek % 30etik % 100era bitarteko modulazio-tartea daukate, gutxi gorabehera</p> <p>Bi maila daude:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Kondentsaziokoak ez diren galdarek berotze-ahalmen handienaren % 90 eta % 95 arteko errendimenduak daukate. - Kondentsaziozko galdarak % 104koak eta hortik gorakoak izatera irits daitezke. Galdara horien ezaugarria galdararen irteeran trukagailu-kondentsagailu bat edukitzea da. <p>Kasu guztietan, bero-ahalmena modulatzeko aukera izatea beharrezkoa da, abiatze- eta gelditze-zikloen kopurua handia izatea saihesteko eta trukagailuaren errendimendua optimizatzeko.</p> <p>Biomasa-galdaren kasuan, kostua asko handitzen da, berau metatu beharraren eta maneiatzeko behar diren baliabide mekanikoen eraginez (torloju amaigabeak, xurgatze-sistemak, etab.)</p>
Zein sektoretan aplikatu daitekeen	Berokuntza edo ur beroa eskatzen duten jarduera guztietan aplikatu daiteke, baita tenperatura-maila horretako beroa behar duten prozesuetan ere (30etik 80 °C-ra, g.g.b.)